

**ZUK ISO ETA NIK ARRE
NEGAR EZ DENEAN, PARRE,
KONTU TA KANTU, TXISTE TA MISTE
UMORE ONA DAKARRE.**

Doinua: Egun da Santimamiñe"

1. Santu-santak akorduan
premina dogun orduan;
gure gustora gabiltzanean
nok behar ditu onduan?.
2. Hartzeko guztiok pronto,
emoteko, barriz, tonto;
zorri bizturik askotxo dabil
inoren lepotik ondo.
3. Don "balitz" ta doña "bazan"
biak alkarrekin dantzan;
haragi gitxi ta salda asko
horreik egindako saltzan.
4. Gizonak lanean ekin,
Jaunak burutu ta egin;
bizi ezinik ez da, badoaz
biak ondo alkarrekin.
5. Hibaiak ez dira haunditzen
ez badira lohiz zikintzen;
diru-poltsa bat ez da astuntzen
mila ez badira arintzen.
6. Dagonen dagontxo
ai ene ba, gixontxo!
Urtean zehar porrusalda ta
Pazkoz ahal bada artxo.
7. Hilda gero, salda bero,
hoberik ezin espero;
zertan sareak bota, arrainak
urak eroanda gero?.
8. Jan-edanaren goxua,
kontu emonaren gaixua!
Bizi beharra bera da nahiko
gu hezitzeko maixua.
9. Esana bat, emona bi,
esanaz kontenta adi;
Sardinaz doan katu baltzari
atzetik esaiok "xapi".
10. Jantzi txapela buruan
eta ibili munduan;
kontu asko ta probetxu gitxi
horrelakoen onduan.
11. Jan behar da biziteko
eta ez bizi jateko;
hamaika bizi dok lur gainean
lau hankakoen pareko!
12. Kalera urtenda uso,
etxean sartuta otso;
holako baten etxe-ingurua
ez dok ibiliko goxo.
13. Nun dagon nire gogo,
han dago nire zangoa;
alperrik amets, ezin eskura
hemengoa ta hangoa.
14. Nirea nirezat dana
ta zurea erdibana;
karidadea ete da nigan
hasi eta amaitzen dana!
15. Zozoak beleari: ipurbeltz,
inorena danean, latz;
auzoa auzo, dana sastraka,
gurean dana da baratz.
16. Gixona beti da gixon
eta katu baltza mixon;
hazkura ba haz, hirea don ta
nahi badon, hazkura eixon.
17. Zaharra beti da ganbelu,
gaztea, barriz, gaztelu;
alkarlanean bizi izateko
inoiz ez baino hobe belu.
18. Txarto esanak parkatu,
ate-ostean sakatu;
lege hoberik ez da sortuko
herria nahi bada askatu.
19. Hobe txori bat eskuan
eta ez asko zeruan;
dagona dago, diranak dira
lehen, orain eta geruan.
20. On eginaren pagua,
ate-ostean palua;
leku askotan banatzen da gaur
holako erregalua.

A.Martzel